

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuak arrakasta izan dezan, beharrezkoa da lehenik eta behin, **gauza desberdinetan formatutako irakasle** ugari izatea, hau da, jakin dezaten zer nolako laguntza eman edozein kasuren aurrean, esaterako, urritasuna edo arazo mentalak dituen pertsona batek adibidez, **laguntza espezializatu**ago bat behar dutelako, eta ezin bestekoa da jakitea horri nola aurre egin. Eta era berean, **ikasketa teknikak** erakustea iruditzen zaigu dela lehengo pausu garrantzitsua.

Enpresek aliantzak sortzen dituzte beren negozio ereduak optimizatzeko, arriskuak murrizteko edo baliabideak eskuratzeko.

Elkarte motei dagokienez, hainbat mota daude, 4 hain zuzen ere;

- Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak
- Lehiakideen arteko aliantza estrategikoak
- Negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak, edo Joint Venture izenekoa
- Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskugarritasuna bermatzeko.

Gure zerbitzuak, honako hauek izango ditu barneratuta; lehenik eta behin **elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategiko** horietako bat da, hau da, aliantza mota hauetan parte hartzen duten enpresen negozio-ereduak ez dira lehiakide merkatu-segmentu edo baliabideei dagokienez, eta elkarrekin lanean aritzea biontzako izan daiteke onuragarri. Gureari dagokionez, hezkuntza enpresa handi baten menpe gaudela esan dezakegunez, hau da, eskola, institutu, unibertsitate, etab. Beraz, enpresa handi hoietako batekin lan egitea, biontzat onuragarria izango lirakeela pentsatzen dugu.

Ondoren, **negozio berriak sortzeko enpresen arteko elkarteak, edo Joint Venture** izenekoa ere bada; mota hau, negozio baten garapenean bi enpresek baino gehiagok esku hartzen dutenean gertatzen da. Batzuetan, enpresa berri bat sortzen dute, baina bestetan, soilik lanak eta aktiboak elkarrekin kudeatzeko elkartzen dira, eta gurea, mota honetakoa da ondorengo arrazoiengaitik:

- Negozioa aurrera eramateko eta arrakasta izan dezan, irakasleei formakuntza bat eman behar zaie, horretarako, beste enpresa batekin kontaktuan jarri behar gara, beraz, kasu horretan, elkar kudeaketa bat egiten dugu.

Azkenik, **erosle eta hornitzaileen arteko harremanak** ere baditu gureak, hau da, materialen eskugarritasuna bermatzeko. Esaterako, Lenovo ordenagailu enpresarekin akordio batera iritsiko ginatke eta irakasle bakoitzeko ordenagailu bat behar dugunean eskatu ahal izateko.

Gure proiektuak ongi aukeratu beharko genituzke dagokionez, benetan erakustea



funtzionatu dezan, ongi gure bazkideak. Irakasleei gogoa duten formatutako

pertsonak izan beharko dira, beti ere, esan bezala, gauza desberdin askotan formatutako irakasleak izango lirateke.

Elkarte hauek ondorengo arrazoiengatik sortuak dira:

- Optimizazioa eta eskala ekonomiak
- Arriskua eta ziurgabetasuna murriztea
- Baliabide edo jarduera jakin bat eskuratzea

OPTIMIZAZIO ETA ESKALA EKONOMIKOAK:

Eskala ekonomiak konpainiak ekoizpen maila optimora iristen denean botere gehiago aipatzen du **kostu txikiagoarekin gehiago ekoizteko**, hau da, enpresa bateko produkzioa hazten den neurrian, ekoiztutako unitateko bere **kostuak gutxitzen** dira.

ARRISKUA ETA ZIURGABETASUNA MURRIZTEA:

- **Arriskua**, emaitza desberdinak ezezagunak direnean, baina gizabanakoek probabilitateak esleitu ditzakete.
- **Ziurgabetasuna**, gizabanakoek emaitza bakoitzari probabilitateak esleitu ezin dizkiotenean.

BALIABIDE EDO JARDUERA JAKIN BAT ESKURATZEA:

Baliabide guztiak erregistratu behar dira, kanpoko eta barneko kostuen kalkulu zehatza egin ahal izateko.

Horretarako, garrantzitsua da gauzak eguneratuta eta txukun eramatea.

